

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manu Garate Aizpuru

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1937-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Zumaiako Goikotorreko etxean jaio bazen ere, gurasoak azpeitiarrak zituen Manuk: aita Urrestillako Koxo baserriakoa eta ama Nuarbeko Mendibilgoa. Maristetan ikasketak egin eta 14 urte bete berritan 'Otto Holke' lantegian hasi zen lanean. Beste lantegi batzutan ibili ondoren, familiako enpresa txikia, 'Xumai', jarri zuten martxan eta 1969an, herriko beste lantegi batekin elkartuta, 40 urtez martxan egon den 'Egurko' kooperatiba sortu zuten. Kanta eta bertso zalea, Zumaiako bertso-eskolaren sortzaileetako bat izan zen [Joanito Dorronsoro](#)rekin batera (lehenetakoa izan zen Euskal Herrian), eta Santa Ageda bezperan baserriz baserri koplak abestuz joateko ohiturari ez zion hutsik egiten.

Zintak

ZUM-098

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2011-11-30
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Gurasoen etorrera Azpeititik Zumaiara

- **Erref:** ZUM-098/002
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

<p>Gurasoak Azpeitian ezkondu ziren arren, senide denak Zumaian jaioak dira. Aita hargina zen lanbidez, lanera oinez joaten zen Urrestillatik Getariara.

Kaltzadore gisa Urolako ferrokarrilaren tunelak egiten ibilia izan bide zen, gerra garaia iritsi ziren arte.</p>

2. Zumaiako eskolak

- **Erref:** ZUM-098/004
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Txikitan "Tintuxeneko" eskolara joaten ziren. Maria eta Jose, eskola nazionalak deiturikoak eta maristak ere baziren. Azken hauek gaur egun Ubillos dagoen lekuan zeuden, eta ez ziren gerraosteko erregimenaren gustukoak. Maristak bidali eta urtebete ondoren, mertzedarioak ekarri zituzten. Gurasoen aginduz mertzedarioetatik alde egin eta eskola nazionaletara joan zen, eta graduatua lortzearekin batera, lanean hasi zen, 14 urterekin.</p>

3. Zumaiako lanbide eta lantegiak

- **Erref:** ZUM-098/005
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:11:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Lanbideak

Laburpena:

Zumaian ontzigintza, motorrak, makinaria desberdinak, eta abar lantzen ziren. Berak Otto Holke enpresan eman zuen izena eta 14 urte bete baino hiru egun lehenago hasi zen lanean, otsailaren 2an.

4. Santa eskean Azpeitira

- **Erref:** ZUM-098/006
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:11:07. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Santa Ageda egunez etxez etxe ibiltzen ziren kantuan. Lanean hasi zen urte hartan, 1951n, Eskola Nazionaletan elkarrekin ibiltzen ziren lau lagunak Urolako trenean Azpeitira abiatu ziren txukun-txukun jantzita, taberna eta elkarteetan abestera. Arratsaldean Zumaiara itzuli, dirua banatu eta etxera joan ziren, ekaitza zela-eta ez baitzegoen eskean jarraitzerik.</p>

5. Lanetik irten eta santa eskean baserriz baserri

- **Erref:** ZUM-098/008
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Garai hartan bere adineko mutilak Zarautza joaten omen ziren santa eskean. Beraiek ere lantegitik irten eta joan izan ziren baserrietara abestera, dirua bildu eta ohitura mantentze aldera. Batez ere dirua, baina diruaz gain baserrietan arrautzak ere ematen ei zituzten.

6. Santa eskeko koplak eta martirien abestiak

- **Erref:** ZUM-098/009
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Koplak baino martirien abestiak gehiago abesten zituzten santa eskean. Amak erakutsi zizkion eta gerora Arantzazuko aldizkari batean aurkitu zituen abestiok. Aldizkari hartatik ateratako abesti pare bat eta kopla batzuk abestu ditu. Hiru edo lau joan ohi ziren kantuan, musikarik gabe.

7. Ikastolaren alde santa eskean

- **Erref:** ZUM-098/010
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Lanean hasi eta gerora Santa Ageda bezperak eten bat izan zuen beretzat eta inguruko askorentzat. Gerora ezkondu eta umeak ere etorri ziren. Zumaian ikastolaren sorrera pil-pilean zegoen, gurasoen bilerak eta abar. Ikastola sortu zenetik laguntzen aritzen zen talde bat santa eskean atera zen, lortutako dirua ikastolara bideratzeko. Ikastola sortu zenetik, gurasoak kantura irteten ziren Santa Ageda bezperan, seiak inguruan hasi eta berandura arte.

8. Santa eskeko ibilbidea

- **Erref:** ZUM-098/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Lana zela-eta, Santa Ageda bezperan irteterik ez bazuten, bi egun lehenago edo beranduago irteten ziren kantuan. Urte askoan mantendu dute ohitura. Egun Askizutik hasi eta Getaria inguruko baserrietan goiza pasa ondoren, bazkalostean Zumaiako baserrietara joaten dira, Zumaiako kaleetan amaitzen delarik ibilbidea, taberna eta elkarteetan kantuan.</p>

9. Soldadutzara joan aurretik santa eskean

- **Erref:** ZUM-098/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:26:44. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Garai hartan talde txikietan irteten ziren santa eskean. Ohituraz, urte horretan soldadutzara zihoazen "kintoak" ere santa eskean aritzen ziren. Argazki batzuk ere erakusten ditu Manuk.

10. Santa Ageda eta inauteriak

- **Erref:** ZUM-098/015
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Galtzak, blusa, abarkak eta txapela. Lepoan zapi koloretsua. Horrela janzten ziren santa eskean kantuan irteteko. Nafarroako eta bertako inauteriak berdinak ez izan arren, biek omen dute antzekotasunik Santa Agedako ohiturekin; kolorea, festa...

11. Santa eskean aritzeko hurritz-makilak

- **Erref:** ZUM-098/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Santa eskeko makilak hurritz-makilak izan ohi ziren, baita baserrietan-eta erabiltzen ziren akuiluak ere. Urriko ilbeheran moztu behar izaten zen hurritza. Nuarben bizi zenean, baserritarrak Murumendira joan ei ziren hurritza mozttera.</p>

12. Ikastola sortu ostean guraso gehienak santa eskean, gizon zein emakume

- **Erref:** ZUM-098/017
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:33:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Hasieran gizonetakoak bakarrik irteten ziren abestera. Ikastola sortu ostean emakumeak ere bai, guraso guztiak.

13. Zumaiaiko bertso-eskolaren sorrera

- **Erref:** ZUM-098/018
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Txikitatik egon da bertsolaritzarekin kontaktuan. Joanito Dorronsoro ikastolan bertsolaritza irakasten hasi zenean eta haurrak etxera bertso-doinuak abesten etorri zitzaizkionean, Joanitori proposatu zion Zumaian bertso-eskola sortzea. Ordurako Eskoriatza inguruan bazegoen mugimendua; Sarasuatarrak... Joanito berehala jarri zen haiekin harremanetan.</p>

14. Eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa

- **Erref:** ZUM-098/019
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1981ean jokatu zen eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa. Bi maila bereizten ziren, 14 urte artekoak eta 14tik 18 urtera bitartekoak. Joanitok animatu zituen herriko gaztetxoak parte hartzera.

15. Zumaia bertsolari txapelketa

- **Erref:** ZUM-098/020
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:39:51. **Bukatu:** 00:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Zumaian 1985ean jokatu zen herri mailako lehenengo bertsolari txapelketa, Anaden. Bertsolari eta bertsozale ugari elkartzen zen orduan, eta gaur egun arte iraun duen ohitura da.

16. Bertsolaritza Zumaian

- **Erref:** ZUM-098/021
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:41:24. **Bukatu:** 00:44:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ezkondu eta gero igande arratsaldetan kafea hartu eta bertsoak entzutera joaten ziren. Zumaian jende asko elkartzen zen. Bertso-eskola sortu ostean ere jaialdiak-eta antolatzen ziren, gaur egun ere bai. Orain gazteak dira bertso-eskolan inplikatzeko direnak, beraien babespean.

17. Bertsopaperak

- **Erref:** ZUM-098/022
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:44:26. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Garai batean bertsopaperak ere ateratzen ziren, baita saldu ere. Berak ere jardun zuen bertso idatziak sortzen, Joanitorekin ikasita. Bertsopaper txapelketetan ere parte hartutakoa da, noizbait baita irabazi ere.</p>

18. Bertsopaperak abesten

- **Erref:** ZUM-098/026
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Laugarren saria irabazi zuen bertsopaper lehiaketan. Laxaro Azkunek bertso bat abestu behar zuela esan eta Loiola irratia buruzko sortatik azken bertsoa kantatu zuen, "Aizak hi mutil mainontzi" doinuan, 1986an.</p>

19. Pirinioetatik Bardeetara transhumantzia

- **Erref:** ZUM-098/028
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:56:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Egunkarian agerturiko iragarki batek arreta piztu, deitu eta Pirinioetatik Bardeetarainoko ibilbidea egin zuen seme zahararekin, bost eguneko transhumantzia. Hogeita hamar laguneko kuadrilla elkartu ziren. Ondoren, bizitako esperientziari buruz idatzitako bertsoak bidali zituen Irungo bertsopaper lehiaketa batera.</p>

20. Bardeetan bertsotan

- **Erref:** ZUM-098/029
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:56:19. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Hogeita hamar laguneko kuadrillak Pirinioetatik Bardeetarainoko ibilbidea egin zuten behin. Azken etapa Zarrakaztelutik Bardeetarainokoa izan zen. Olibako monasterioan bazkaldu zuten, Manuk bezperan kanpin-dendan idatzitako bertsoak abestu zituen. Gerora Otsagin elkartu ziren batean jakin zuen bilbotar batek bertsook gaztelerara itzuli zituela, taldeko askok ez baitzekiten euskaraz. Orain etxekoei egiten dizkie bertsoak, gehienetan kopla motzak.</p>

21. Zumaiko lantegietako lan-baldintzak

- **Erref:** ZUM-098/030
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 01:00:10. **Bukatu:** 01:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Zortzi urte eman zituen Otto Holke enpresan lanean, baina soldadutzatik itzuli eta sei hilabete eskasera utzi zuen, ordurako neska-lagunarekin hasita zegoen. Zumaian lau lantegi zeuden garai hartan: Unanue, Yeregi, Otto Holke eta Balenciaga. Zarautzen ere aritu zen lanean, baita Egigurenen eta etxepeko baten enpresan ere.

22. Egurko kooperatibaren sorrera eta bilakaera

- **Erref:** ZUM-098/031
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:05:41. **Bukatu:** 01:10:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Taldetxo bat hasia zen bilerak egiten kooperatiba bat sortzeko asmotan. Arrasaten esan zieten Zumaian bazela beste talde bat, Urgain, egurra lantzen hasia zena eta hobe zela kooperatiba bat, bi txiki baino. 1970ean Urgain eta Xumai elkartuta, Egurko kooperatiba sortu zuten. Bere gorabeherekin, oraintsu arte iraun du Egurkok.

23. Igandetan musika izaten zen goiko plazan

- **Erref:** ZUM-098/033
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:11:06. **Bukatu:** 01:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Hogeita bat urte zituen berak eta hemeretzi bere emazteak, goiko plazan musika egoten zen igandetan eta dantzari zirela ezagutu zuten elkar. Neskak ez zuten ezer ordaindu beharrik izaten bertan egoteko, mutilek bai ordea.

24. Ibañarrietako erromeriak

- **Erref:** ZUM-098/034
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:13:39. **Bukatu:** 01:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Santa Kutzetan erromeria izaten zen Ibañarrietan. San Lorente gainetik joan ohi ziren hara, eta aukera ona izaten zen beste herrietako neskak ezagutzeko. Iluntzerako etxera erretiratzen ziren, paga gastatuta. Zumaian auzoetan ere izaten ziren erromeriak, San Migelen, esaterako.

25. Neskekin dantzan erromerian

- **Erref:** ZUM-098/035
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:16:35. **Bukatu:** 01:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Baltsak eta pasodobleak dantzatzen zituzten erromerian. Azeptian eta Azkoitian debekatuta zegoen neskekin dantzan aritzea, Zumaian ez ordea. Neska asko Hijas de María kongregazioko parte ziren, eta mutilekin dantzatzuz gero, kongregaziotik kanpo uzten omen zituzten.</p>

26. Elizako konfesio eta sermoiak

- **Erref:** ZUM-098/036
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:19:45. **Bukatu:** 01:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Oso elizkoiak ziren. Konfesatzera joan behar izaten zuten askotan elizara, nahiz eta jakin berriz egingo zutela konfesatu berri zutena. Pulpitotik ere sermoi gogorrak botatzen zituzten, nahiago du ez gogoratzea.

27. Aspalditik hasia egurrean tailuak egiten, eta geroxeago harrian ere bai

- **Erref:** ZUM-098/037
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 01:22:35. **Bukatu:** 01:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Ofizioz mekanikoa zen eta afizioz aspaldidanik hasi zen egurra lantzen, tailuak egiten. Donostian egin zuen ikastaro bat eta erakusketa jarri ere bai ikastaroa amaitzean. Jada sei urte igaro dira harria lantzen ere hasi zela.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com